

ARRANTZA. ICCATen bilera Bruselan

Olaizolaren ustez, kupoak ez ezik flotak kontrolatu behar dira

Gipuzkoako Kofradien presidenteak dio erakundeen aldetik ardura falta dagoela



XOUSE SIMAL
Hegaluzea portura deskargatzen, Bermeon.

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Atlantikoko hegaluzearen kontserbaziorako institutuak (ICCAT) arrantza ikuskatzeak eta kupoak eztabaidagai izango ditu hilaren 21 eta 23aren bitartean Bruselan egingo duen bileran. Nazio partehartzaileekin batera, bertan izango dira Itsas Geroa Gobernu Kanpoko Erakundearen eledun Xabier Etxezabarreda eta Esteban Olaizola Gipuzkoako Kofradiako presidentea. Olaizolak EGUNKARIARI azaldu dionez, bi eskarirekin joango dira hara: batetik, kupoa bezala erakundeek itsasontzi kopurua kontrola dezatela, eta, bestetik, arrantzontzirik ez duten estatuei kuporik ez onartzea. «Erakundeek diote arrantza arduratsua egin behar dugua

la, baina, era berean, geuk erakunde arduratsuak eskatzen ditugu», azaltzen du Olaizolak.

Gipuzkoako Kofradiako presidenteak garrantzitsutzat jo zuen eztabaidetan euskal arrantzaleen ordezkariak parte hartu ahal izatea. Izan ere, ICCATeko bilerak Atlantikoko estatuak soilik biltzen ditu, eta, Europaren kasuan, erabakiak aho batez hartzen dira. «Gure ustez, metodo hori ez da ona, herrialde bakoitzak bere eskariak dituelako. Haiek guztientzako ona izango den irtenbidea bilatu nahi dute, baina hori ezinezkoa da».

Bestalde, hurrengo hilean 2002. urterako arrantza hizpide izango duen bileran ere parte hartzeko asmoa agertu du Itsas Geroak.

LABURREAN

Jose Fartok hartuko du Jose Zuritaren tokia, eta Arabako Enpresarien Elkarteko presidentea izango da

Otsailean kargua utzi zuen Jose Zuritak, eta SEAk haren ordezkia hautatzeko prozesua abian jarri zuen. Enpresarien elkarteak atzo ohar baten bidez jakinarazi zuenez, aukeratua Jose Manuel Farto da. Bilbon jaio zen 1958an, eta Zientzia Ekonomikoetan lizentziaduna da. Promozio Ekonomikorako Zuzendaria izandakoa da, eta egun Gasteizko Udaleko Planifikazio Estrategiko zerbitzuko arduraduna zen. Ekainaren 1ean hasiko da bere lanpostu berrian.

Ehun lagun bildu dira Itziarren, asteazkenean izandako lan istripuaren aurka protesta egiteko

36 urteko behargin bat hil zen asteazkenean Debako Itziar auzoan dagoen Anayak izeneko enpresan. Istripu horren aurka protesta egiteko ehun pertsona elkarreteratu ziren atzo goizean. *Lan egonkor eta segurua* pankartaren giblean hamabost minutu igaro zituzten. Enpresa itxita izan zen egun guztian, dolua adierazteko.

Bankuetako LABeko delegatuek Donostian eta Bilbon mobilizazioak egin dituzte

Bankuetako LABeko delegatuek elkarretaratzeak egin zituzten atzo Bilbon eta Donostian KPren pareko soldata igoera aldarrikatzeko. Espainiako Bankuen Elkarteak salatu dute, iaz bilioi bat pezeta baino gehiago irabazita, langileek erosahalmena galdu dutelako. CCOO eta UGT ere kritikatu dituzte ituna sinatzeagatik.

Bizkaiko enpresen lehiakortasuna hobetzeko Eraberritu plana sortu du Aldundiak

Bizkaiko enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin, Aldundiak Eraberritu programa abian jarri du. Era berean, planak iraunkortasun zehatz bat izango duten diru laguntzak aurreikusita dauzka. Horri esker, enpresek epe ertain edo luzeko plangintzak egiteko aukera edukiko dute. Eraberritu programak 1.000 milioi pezetako aurrekontua izango du aurtent, eta antolatzaileek 340 enpresen eskaria jasotzea espero dute. Enpresa horien bitartez, 7.400 langile bilduko lituzkete.

ARTk 3. belaunaldiko sakelako telefonoen baimenak ezeztatzeko asmoa du Frantzian

ART Frantziako Telekomunikazioak Arautzeko Agintaritzak «serio» aztertzen ari da hirugarren belaunaldiko sakelako telefonoen lau lizentziak baliogabetzea, lehiakortasun arazoak eta irregulartasun juridikoak antzeman baititu. *Le Monde* egunkariak argitaratu du hilaren amaieran jakinarazi dezakeela neurria.

Sanzen aburuz Pasiboen Legea atzera botatzea «nahiko larri da, aurrekaria ezarri baitu»

Miguel Sanz Nafarroako presidenteak Castejon herrian eginiko hitzaldian adierazi zuen oposizioak Pasiboen Legea atzera botatzeko orduan ez diola jaramonik egin Foru administrazio funtzionarioen ordezkariekin lortutako negoziazio kolektiboari. «Nahiko larria da, aurrekaria ezarri baitu», esan zuen Sanzek.

ERAIKUNTZA

Sektorearen jardura %16,1 igo egin zen iaz Euskal Autonomia Erkidegoan

Agentziak | BILBO

EUSTATEk emandako datuen arabera, eraikuntza sektoreak %16,1eko igoera izan zuen iaz Euskal Autonomia Erkidegoan. Txostenaren arabera, sektoreko azpiatal biek garapenarekin lotura estua eduki zuten arren, obra zibilak baino dinamismo handiagoa izan zuen eraikuntzak. Hurrenez hurren, bakoitzak %14,8 eta %16,5ko tasak bildu zituen urtean zehar. Eraikuntzaren barruan, familia etxebizitzak %20,1 hazi egin ziren, eta eraikin kolektiboak, berriak, %12,2.

Bestetik, iazko laugarren hiruhilabetearen eraikuntzan enplegua %0,9 igo egin zen. Baina 99ko datuekin erkatutik, sektorean lan egiten duen pertsonen kopurua %4,8 hazi egin zen. Igoera hori parekatua izan zen bai eraikuntzan bai obra zibilean.

LANGABEZIA

PARE plangintza nagusiei egindako oparia dela dio LAB sindikatuak

Erredakzioa | BAIONA

Frantziako Asanblea Nazionalak maiatzaren 9an onartu zuen PARE deitu langabezia antolaketaren legea, langabezian elkarrekin eta CGT zein FO sindikatuen kontrako iritziarekin.

LAB sindikatuak «Gobernuak nagusiei opari ederra» egin diela uste du. «Plangintza berriaren langabeziaren izaera eta egoera guztiz aldatuko dira, langabeak proposatzen zaion lanpostua onartzen ez badu zigortuko» dutela ohartarazirik. «Helburua langileak enpresei egokitzea da, edozein lan baldintzatan», salatu du LAB sindikatuak.

BURTSA. Ibex-35ak 9.700eko maila berreskuratu zuen

Asteburuko irrifarrea

J.B. Andueza |

EBZ eta Erreserba Federalaren azken interes tasen beherakadaren ondoren eta tekno txerri txoen San Martina ospatuta, enpresen mozkinak begiratzeko garaia iritsi da. Telefonica (18,15 eurotan dago) eta Repsol-YPFk (+%2,34) emaitza handiak eman dituzte, BBVA

(+%0,73) eta BSCHk (+%0,35) Citigroup Mexikon sartzearen onura jaso dute eta, goiz ahularen ondoren, berpiztu egin zen burtsaren bizitasuna. Bolumena 1.600 milioi euroz gainekoa izan zen, aspaldiko partez. %3 pasa igo ziren Altadis, Sogecable eta Sol Melia. Ferrovial ere %4,31 igo zen. Movilesek %2,17 irabazi zuen eta Iberdrolak %2,25.

DATUA

Espanian Internet bidez jarduten duten bost bankuek 14,4 milioi euro galdu dituzte aurtent. Uno-e, Patagon, Activo, Bancopopular-e eta All Funds dira. Galeren erdia baino gehiago BBVA eta TerraLycosena den Uno-eri dagokie. Negozio bila segi beharko dute amarauneko bankuok.

Bilboko 2000 indizea



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	11,218.78 (-%0,26)
Tokio (Nikkei)	13,877.77 (-%0,24)
Madrid (IBEX-35)	9,728.40 (+%0,69)
Paris (CAC-40)	5,638.24 (+%0,82)
Londres (FTSE 100)	5,915.00 (+%0,18)
Frankfurt (DAX)	6,186.87 (+%0,21)
Milan (Mibtel)	28,017 (+%0,32)

* Egundira arte

Dibisen merkatua

	Euro bat
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	0,8777
Libra Esterlina	0,6137
100 Yen (Japonia)	1,0835